



**BAZTANGO TOKIKO GOBERNU
BATZORDEAK EGINDAKO BILKURA
AKTA: 2011/12/02**

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL
CELEBRADA POR EL AYUNTAMIENTO DE
BAZTAN EL DÍA 02/12/2011**

2011ko abenduaren 2an goizeko 11:30ean Baztango Udalak Tokiko Gobernu Batzordea ohiko eta lehenengo deian osatu zuen arauzko moduan deitu ondotik. **GARBINE ELIZEGI** alkatea mahaiburu izanik eta ondoko zinegotziak bertaratu ziren:

*En Elizondo y casa consistorial, siendo las 11:30 horas del día 2 de diciembre de 2011, se reúne el Ayuntamiento de Baztan constituido en Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria y primera convocatoria, tras haber sido convocada la misma en forma legal. Presidida por la Alcaldesa-Presidenta **GARBINE ELIZEGI** y con la asistencia de los siguientes concejales:*

- .- MIKEL ORTEGA
- .- IÑIGO ITURRALDE
- .- FLORENTINO GOÑI
- .- PELLO IRIARTE

Ez dira bertaratu.

No han asistido:

Eta artatuz, udal idazkaria Iulen Urbiola Loiarde

Asistiendo como Secretario, el titular de la Corporación, D. Iulen Urbiola Loiarde

1.- AURREKO AKTA

Alkateak bilkurari hasiera eman ondotik, Tokiko Gobernu Batzordeak 2011ko abenduaren 25eko akta baieztatzen du.

Tras dar inicio la Alcaldesa a la reunión la Junta de Gobierno Local ratifica el acta de 25 de noviembre de 2011.

**2.- ESKAERAK
ZUHAITZAK**

ANGEL VILLERO BARRANCO-k 2011/10/27an Izpegiko errepideko 7. kilometroan botata dagoen haritz bat berari ematea eskatu du. Udal basozainaren txostena ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak eskatzaileari jakinarazten dio zuhaitza jabea daukadala.

Con fecha de 27/10/2011 ANGEL VILLERO BARRANCO ha solicitado un roble caído en el km 7 de la carretera a Izpegi. Visto el informe del guarda forestal municipal la Junta de Gobierno Local comunica al solicitante que el árbol tiene dueño.


FLORA URRUTIA EZKURRA-k 2011/11/23an Meaka eremuan, Iruritan, botata dagoen haritza berari ematea eskatu du. Udal basozainaren balorazioa eta oniritzia ikusi ondoren, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du zuhaitza hartzeko baimena ematea. Ordaindu behar den kopurua 30 €.

Con fecha de 23/11/2011 FLORA URRUTIA EZKURRA ha solicitado un roble derribado y situado en el paraje de Meaka. Irurita. Vista la valoración y la confirmación del guarda forestal municipal, la Junta de Gobierno Local da permiso a la solicitud. El total a pagar es de 30 euros.

ABALA

2011/09/12an **Proyección Equipamiento y Mobiliario SL**-k hartzaindegiaren altzarien abala bueltatzea eskatu du. Udal langilearen txostena ikusirik eta kontu-hartzailearekin kontsultatu eta gero Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du eskatutako abala bueltatzea

Proyección Equipamiento y Mobiliario SL con fecha 12/09/2011 solicitó la devolución del aval correspondiente al equipamiento infantil 0-3. Visto el informe del trabajador municipal y consultada la interventora, la Junta de Gobierno Local acuerda la devolución de lo solicitado.



ZABOR ZERGA

M^a ASUN MENDIBURU

Ikusita 2011/11/24 datarekin M^a Asun Mendiburu-k bere aitaren izenean, idazki bat sartu duela non udalari eskatzen dio azken lau urteko zabor zerga itzultzea bitan ordaindu duelako katastroaren akats baten ondorioz. Udal katastroko arduradunaren txostena ikusirik 2011/11/28 eta Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 17. artikulua kontutan izanik, , tokiko gobernu batzordeak erabaki du:

- 1.- Eskaera onartzea
- 2.- Akordio hau interesatuari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

Visto escrito presentado con fecha 24/11/2011 por M^a Asun Mendiburu en representación de su padre, en el que solicita la devolución de los últimos 4 años de la tasa de basuras por un error en catastro. Visto informe emitido por el responsable de catastro con fecha 28/11/2011 y de acuerdo al artículo 17 de la Ley Foral de Haciendas Locales 2/1995, la Junta de Gobierno Local ha decidido:

- 1.- Aceptar la solicitud.
- 2.- Notificar el presente acuerdo a la interesada, para su conocimiento y efectos oportunos.

JUANA HUALDE ZABALETA

Ikusita 2011/11/28 datarekin Juana Hualde Zabaleta-k bere amaren izenean, M^a Rosario Zabaleta, idazki bat sartu duela non udalari eskatzen dio azken lau urteko zabor zerga itzultzea ordainketaren bikoiztapena izan delako. Udal katastroko arduradunaren txostena ikusirik 2011/11/28 eta Nafarroako Toki Ogasunaren 2/1995 Foru Legearen 17. artikulua kontutan izanik, , tokiko gobernu batzordeak erabaki du:

- 1.- Eskaera onartzea
- 2.- Akordio hau interesatuari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

Visto escrito presentado con fecha 28/11/2011 por Juana Hualde Zabaleta en representación de su madre D^a M^a Rosario Zabaleta Urquizu, en el que solicita la devolución de los últimos 4 años de la tasa de basuras por cobro duplicado. Visto informe emitido por el responsable de catastro con fecha 28/11/2011 y de acuerdo al artículo 17 de la Ley Foral de Haciendas Locales 2/1995, la Junta de Gobierno Local ha decidido:

- 1.- Aceptar la solicitud.
- 2.- Notificar el presente acuerdo a la interesada, para su conocimiento y efectos oportunos.

ROBERTO GOÑI

2011/12/01 datarekin, ROBERTO GOÑI-k idazki bat sartu du bere harategia sortzen dituen hotsak direla eta espedientean dagoen foruzainak egindako soinometriaren kopia eskatuz. Kontuan izanda Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 95. artikulua, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

- 1.- Eskaera baimentzea kontuan izanda Nafarroako Tokiko Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 95. artikulua irizpideak.
- 2.- Eskatzaileari jakinaraztea fotokopiak ordaindu behar direla udal tasen arabera.
- 3.- Akordio hau interesatuari helarazi bere ezaguera eta ondorioetarako


Con Fecha de 01/12/2011, ROBERTO GOÑI, ha cursado un escrito solicitando copia de la medición de sonido existente en el expediente municipal en relación a la queja de Juan Cruz Lazcano ante los ruidos que dice que genera la carnicería d Roberto Goñi. Teniendo en cuenta el artículo 95 de la Ley Foral 6/1990 de la Administración Local, la Junta de Gobierno ha resuelto

- 1.- Autorizar la solicitud teniendo en cuenta siempre los criterios señalados en el artículo 95 de la Ley Foral 6/1990 de la Administración Local
- 2.- Informar al solicitante que las fotocopias habrán de ser abonadas según las tasas municipales.
- 3.- Notificar el presente acuerdo a los interesados para su conocimiento y efectos oportunos.

3.- BESTEAK

306/2011 EBAZPENA

Idazkariak komertzio eta turismoko zuzendari orokorraren 306/2011 ebazpenaren berri ematen du. Bertan jakinarazten da Josefina Ariztiaren izenean Nafarroako Turismoko



erregistroan Oronoz-Mugairen kokatutako Barbèrenekoborda landa etxea erregistratu dela. Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratzen da.

El secretario da cuenta de la Resolución 306/2011, del Director General de Turismo y Comercio, por la que se inscribe el en Registro de Turismo de Navarra, a nombre de D^a M^a Josefina Ariztia la casa rural "Barberenekoborda", ubicada en Oronoz-Mugaire. La Junta de Gobierno Local se da por enterada.

275/2011 EBAZPENA

Idazkariak **Hezkuntza Baliabide Zuzendari Orokorren** 275/2011 ebazpenaren berri ematen du. Bertan Baztango udalari 34.370.65 euroko ordainketa onartzen dela jakinarazten da, S. Fco. Javier ikastetxearen kanpoko zurgintza aldatzeagatik. Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratzen da.

El secretario da cuenta de la Resolución 275/2011, del Director General de Recursos Educativos, por la que se aprueba el abono de 34.370.65 euros por el cambio de la carpintería exterior del CP S. Fco. Javier. La Junta de Gobierno Local se da por enterada.

KANTAUURIKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOA

Idazkariak **KANTAUURIKO KONFEDERAZIO HIDROGRAFIKOA**-ren ebazpenaren berri ematen du. Bertan jakinarazten da, KKH-k Angel Goñi eta Alicia Arraztoari Artesiaga errekan eskollera bat egiteko baimena eman diela. Tokiko Gobernu Batzordea jakinaren gainean geratzen da.

El secretario da cuenta de la Resolución de la Confederación Hidrográfica del Cantabrico, por la que se autoriza a Angel Goñi y Alicia Arraztoa la ejecución de una escollera en la regata Artesiaga. La Junta de Gobierno Local se da por enterada.

EUSKARA BATZORDEAREN PROPOSAMENA

IZEN ABIZENAK

Maitane Maritorea Zinegotziak Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazki batean hizkuntza normalizazio plangintzaren barnean euskararen erabilera sustatzeko atala dagoela, eta horri lotuta, abizenak euskal grafiaz idazteko eta haurrak euskaraz inskribatzeko kanpaina egiteko aukera dagoela jakinarazten du. Hortaz, 600 euroko gastua onartzea, abizenak euskal grafiaz idazteko eta haurrak euskaraz inskribatzeko kanpaina aurrera eramateko proposatzen du. Eskaera aztertuta Tokiko Gobernu Batzordeak proposamena onartzea erabaki du. Akordio hau Maitane Maritorea Zinegotziari eta udal kontu-hartzaileari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

La concejal D^a. Maitane Maritorea en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local informa que el plan de normalización lingüística recoge el apartado de promoción del uso del euskera, y unido a éste, la campaña para la regularización ortográfica de los apellidos y la inscripción de niñ@s en euskera. En consecuencia propone se apruebe un gasto de 600€ para desarrollar una campaña para la regularización ortográfica de los apellidos y la inscripción de niñ@s en euskera. Visto el escrito la Junta de Gobierno Local ha resuelto admitir la propuesta. Notificar el presente acuerdo a D. Maitane Maritorea y a la Interventora municipal para su conocimiento y efectos oportunos.

NAFARKARI

Maitane Maritorea Zinegotziak Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazki batean hizkuntza normalizazio plangintzaren barnean Baztango Udalaren promozio instituzionala dagoela jakinarazten du. Hortaz, 450 euroko ordainketa onartzea, BERRIA egunkariko Nafarkari Urtekarian Baztango Udalaren promozio instituzionala egiteko proposatzen du. Eskaera aztertuta Tokiko Gobernu Batzordeak proposamena onartzea erabaki du. Akordio hau Maitane Maritorea Zinegotziari eta udal kontu-hartzaileari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

La concejal D^a. Maitane Maritorea en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local informa que el plan de normalización lingüística recoge un apartado de promoción institucional. En consecuencia propone que se apruebe



un gasto de 450 € para la promoción institucional anual del Ayuntamiento de Baztan en el Anuario "Nafarkari" del diario BERRIA. Visto el escrito la Junta de Gobierno Local ha resuelto admitir la propuesta. Notificar el presente acuerdo a D. Maitane Maritorea y a la Interventora municipal para su conocimiento y efectos oportunos.

MIKEL ORTEGA ALKATE-ORDEA LAMIERRITA

Mikel Ortega, Alkate ordeak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian jakinarazi du, Arizkun Lamierrititik Ordokira doan bidean (Nafar Gobernukoa), bihurgune arriskutsu bat dagoela. Bertan 3 istripu larri izan direla, azkena aintzineko asteburuan eta lehenago pertsona batek bizia galdu eta bertze bat zauritua izan direlarik. Ikusita bihurgune horretan biondarik ez dagoela eta jartzeak arriskua aunitz txikituko zuela Ortega jaunak, Tokiko Gobernu Batzordeari proposatzen dio Nafarroako Gobernuko Zonaldeko zeladoreari, Jose Manuel Apezetxea jaunari, bihurgune horretan biondak edo segurtasunezko bertze zerbait jartzeko eskaera egitea. Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du proposamena onartzea. Akordio hau Mikel Ortega alkateordeari eta udal kontu-hartzaileari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

Mikel Ortega, primer teniente de alcalde, en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local comunica que en la carretera (del Gobierno de Navarra) que conduce de Lamierrita a Ordoki en Arizkun hay un cruce peligroso. Ya ha habido 3 accidentes, el último el pasado fin de semana, y anteriormente en otro accidente una persona perdió la vida y otra resultó herida. Visto que en ese cruce no existe "quita-miedos" y que su colocación disminuiría mucho el peligro, propone a la Junta de Gobierno Local que solicite al celador del Gobierno de Navarra de la zona, José Manuel Apezetxea, la instalación de "quita-miedos" u otras medidas de seguridad. La Junta de Gobierno Local ha resuelto admitir la propuesta. Notificar el presente acuerdo a Mikel Ortega y a la Interventora municipal para su conocimiento y efectos oportunos.


ZABOR KAMIOIA

Mikel Ortega, Alkate ordeak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian jakinarazi du, aintzineko udal korporazioak zaborra biltzeko kamioia erosi zuela eta ez zuela kontuan hartu kontenedore soterratuak goratzeko sistema hidraulikoa kamioian jartzea. Beharrezkoa ikusten da sistema hori kamioiari jartzea kontenedore soterratuak erabili ahal izateko eta gaur egun, leku horietan dauden kontenedore berdeak kendu ahal izateko. Instalazio honen kostua 4.307 €koa da eta kamioiaren kaxa egin duen enpresarekin egin behar da garantia gorde ahal izateko. Enpresa SITA da. Gauzak horrela, Tokiko gobernu batzordeari SITA enpresari lanak esleitzea proposatzen dio. Proposamena aztertuta eta jakinda 6/2006, Kontratu publikoei buruzko Foru Legeak bere 73.4.e honakoa eskatzen duela, Laguntza kontratuetan balio zenbatetsia, BEZA kontuan hartu gabe 15.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan nahikoa izanen dela aurretiaz kreditu erreserba egitea eta faktura aurkeztea, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du lanak SITA enpresari esleitzea. Akordio hau Mikel Ortega alkateordeari eta udal kontu-hartzaileari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

Mikel Ortega, primer teniente de alcalde, en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local comunica que la corporación municipal anterior adquirió un camión para recogida de basura pero que no tuvo en cuenta que para poder levantar los contenedores soterrados debía instalarse un sistema hidráulico. Es necesario colocar ese sistema en el camión para poder realizar la recogida en los contenedores soterrados y así quitar los contenedores verdes que se hallan en la actualidad en esos lugares. El coste de dicha instalación es de 4.307 € y tendría que realizarse por la misma empresa que ha construido la caja del camión, para poder mantener la garantía. La empresa es SITA. Por lo cual, propone a la Junta de Gobierno Local adjudicar a SITA dicho trabajo. Examinada la propuesta y teniendo en cuenta que el artículo 73.4.e de la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos establece que en los contratos de asistencia inferiores a 15.000 euros, IVA excluido, únicamente se exigirá la previa reserva de crédito y la presentación de la factura, la Junta de Gobierno Local ha resuelto adjudicar los trabajos mencionados a la empresa SITA. Notificar el presente acuerdo a D. Mikel Ortega y a la Interventora municipal para su conocimiento y efectos oportunos.

NELS SAREA

Mikel Ortega, Alkate ordeak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian jakinarazi du, Baztango Udala "Red Navarra de Entidades Locales hacia la Sostenibilidad (aurrerantzean



[Signature]

[Signature]

NELS Sarea) delakoaren kide izanik, diru-laguntza eskaera bideratzen ahal duela udal instalazioen ikuskapen energetikoa egiteko. NELS Sareak eskaera onartuko balu kostuaren % 75a hartuko luke bere gainean eta Baztango Udalak ordaindu beharko luke gaineko % 25a. Hasiera batean ikuskapen energetikoa honako eraikin eta azpiegituretako eskatuko litzateke: Argiteri publikoa, San Francisco Javier Ikastetxea, Baztan Ikastola (HH eta LH), Baztango Haur Eskola, Herrietako eskolak: Almandoz, Amaiur, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Erratzu, Gartzain, Irurita (2), Oronoz eta Ziga, Igerileku estalia, Polikiroldegia, Udal Liburutegia, Udaletxea, Arizkunenea Kultur Etxea. Hortaz Tokiko gobernu batzordeari Baztango argiteria eta eraikin publikoen ikuskapen energetikoa bideratu ahal izateko diru-laguntza eskaera egiteko proposatzen du. Idazkia ikusirik Tokiko Gobernu Batzordeak proposamena onartzea erabaki du. Akordio hau Mikel Ortega alkateordeari eta NELS sareari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

Mikel Oriega, Teniente Alcalde, ha comunicado mediante escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local que el Ayuntamiento de Baztan, como miembro de la "Red Navarra de Entidades Locales hacia la Sostenibilidad (en adelante Red NELS)", puede solicitar un ayuda para la realización de un auditoría energética en los edificios e instalaciones municipales. En el caso de que la Red NELS aceptara la solicitud asumiría el 75% del coste y el Ayuntamiento de Baztan tendría que abonar el 25% restante. Inicialmente se solicitará la realización de la auditoría energética en los siguientes edificios y equipamientos: alumbrado público, Colegio San Francisco Javier, Baztan Ikastola (educación infantil y primaria), Escuelas de los siguientes pueblos: Amaiur, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Erratzu, Gartzain, Irurita (2), Oronoz y Ziga, piscina cubierta, polideportivo, Biblioteca Municipal, Ayuntamiento, Casa de Cultura Arizkunenea. Por todo lo cual ha propuesto que se autorice la tramitación de la solicitud de ayuda para la realización de la auditoría energética del alumbrado y de los edificios públicos. La Junta de Gobierno Local ha decidido aceptar la propuesta. Trasladar el presente acuerdo al Teniente Alcalde, Mikel Ortega, y a la Red NELS para su conocimiento y efectos.

JON ELIZETXE BASO eta MENDI ZINEGOTZIA

Jon Elizetxe zinegotziak, Tokiko Gobernu Batzordera zuzendutako idazkian jakinarazi du, Red Natura 2000 lanak egin ahal izateko Aritzakun aldean Kapetatzeak egin behar direla. Lanak 2011-12 mendi lanetako proiektuaren barne daude. Hiru aurrekontu ezberdinak eskatu eta gero lanak Lanalekom SL enpresari esleitzea proposatzen du, berarena baita eskaintza merkeena. Proposamena aztertuta eta jakinda 6/2006 Kontratu publikoei buruzko Foru Legeak bere 73.2.c honakoa eskatzen duela Laguntza kontratuetan Balio zenbatetsia, BEZa kontuan hartu gabe 40.000 eurotik beherako balioa duten kontratuetan nahikoa izanen da aurretiaz kreditu erreserba egitea eta faktura aurkeztea, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du lanak Lanalekom SL enpresari esleitzea, 15.600,00 eurotan, BEZa barne. Akordio hau Jon Elizetxe zinegotziari eta udal kontu-hartzaileari helaraztea bere ezaguera eta ondorioetarako.

El concejal Jon Elizetxe, en escrito dirigido a la Junta de Gobierno Local comunica que en el proyecto de actuaciones forestales 2011-12, dentro de las Medidas Red Natura 2000, hay que realizar trasmochos en Aritzakun. Se han pedido 3 presupuestos y visto que la oferta más económica es la de Lanalekom S.L., propone adjudicarle dichos trabajos. Examinada la propuesta y teniendo en cuenta que el artículo 73.2.c de la Ley Foral 6/2006 de Contratos Públicos establece que en los contratos de asistencia inferiores a 40.000 euros, IVA excluido, únicamente se exigirá la previa reserva de crédito y la presentación de la factura, la Junta de Gobierno Local ha resuelto adjudicar las labores de trasmochos en Aritzakun, incluidas en las Medidas Red Natura 2000 del proyecto de actuaciones forestales 2011-2012 a Lanalekom, S.L en importe de 15.600,00 € IVA incluido. Notificar el presente acuerdo a Jon Elizetxe y a la Interventora municipal para su conocimiento y efectos oportunos.

Eta aztergaietan beste gairik ez dagoenez, 12:10ean presidenteak Tokiko Gobernu Batzordea amaitutzat ematen du, akta idazkariarekin batera sinatu, eta idazkariak horren fede ematen du.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Presidenta levanta la sesión a las 12:10 horas, firmando la presente Acta, de lo que yo, el Secretario, doy fe.

ONIRITZIA / Vº Bº
ALKATEA / LA ALCALDESA
Garbiñe ELIZEGI-NARBARTE



IDAZKARIA / EL SECRETARIO

